

## IN MEMORIAM JOAN COROMINES (1905-1997)

*Bilbo, 1997-04-25*

1997ko urtarrilaren 2an itzali zen Pineda de Mar herrian (Bartzelona) Joan Coromines i Vigneaux hizkuntzalari hauta, mende honetako hizkuntzalari hoberenetakoa, 91 urterekin. Hizkuntza erromanikoei, batez ere Iberiako erdiuhartekoei dagokiela, aberats-aberatsa da haren lana, baina euskararen alorrean ere handia da Coromines jaunaren ekarria (1).

Bartzelonan sortu zen 1905ean. Aita Pere Coromines zuen, abokatua, idazlea eta politikaria. Unió Federal Nacionalista Republicana-ko burukidea, Bartzelonako zinegotzia eta *El Poble Català* egunkariaren zuzendaria izan zen Pere. Geroago, Autonomia Estatutuaren idatz-batzordekidea izan zen, Esquerra Republicanako bozeramailea Madrillgo parlamentuan eta Generalitateko Justizia eta Zuzenbide sailburua. Ama, berriz, Celestina Vigneaux, pedagogo ezaguna zen, Katalunian Montessori metodoa sartzen lagundu zuena.

Joan Coromines berehala nabarmendu zen Unibertsitateko ikasle gisa. Zuzenbide eta Filosofia eta Letretako karrerak egin zituen Bartzelonan. Udako oporraldiak Aran-en ematen zituen, Lès herrian. Primo de Rivera diktadorearen aurkako matxinadan parte hartu ondoren, Montpellier-era bidali zuen aitak. Han Grammont eta Millardet-ekin ikasi zuen. Itzultzean, 1928an eskuratu zuen lizentziatura, eta Madrilen burutu doktoregoa, Ramón Menéndez Pidal eta Américo Castro irakasleekin. 1931ean argitaratu zuen tesia, *Vocabulario aranés*, eta bere ikasketak zabaldu nahian Zürichera joan zen, Gauchat, Steiger eta Jud-en eskoletara, eta Parisera gero, Bloch eta Meillet-ekin ikastera. Tesi gaira askoz geroago itzuli zen, eta 1991an argitaratu zuen *El parlar de la Vall d'Aran. Gramàtica, diccionari i estudis lexicals sobre el gascò* (2).

Berriro ere Bartzelonan, Institut d'Estudis Catalans-en lan egin zuen, araugintza lanetan, oroz gain, Fabra, Casacuberta eta Aramon-ekin, bai eta Sanchis Guarner-ekin ere.

---

(1) *Coromines* idatzi dugu hilberri txosten honetan, jakintsuak nahiago zuen gisan, katalanaren arauekin bat. Bidenabar, berak azaldu zuen bere bi hiztegi handietan (gaztelaniazkoan eta katalanezkoan) eta bere *Onomasticon Cataloniae*-n, *coromina* (pl. *coromines*) katalan hitz zaharra dela, "etxe ondoko zelaia" esan nahi duena. Iturria latinezko *condomina*, *conomina* da, eta iturburua *domus*. Ponte-izenean ere aldaketa bat egin behar izan zuen Chicagoko egonaldiaren hasieran: *Joan utzi* eta *John* hartu, inork *ez zezan* uste emakumea zela.

(2) Bartzelona, Curial. Besteak beste, ikus liburu honetan: "Llista dels mots bascos que s'hi descobreixen com erdèrics (d'origen romànic o indoeuropeu)".

Gerra piztu ahala, soldadu joan zen. Lehendabizi *Regimiento Pirenaico* deitzen zenera igorri zuten, baina laster Estatu Nagusiko itzultzaile izan zen. 1939an Parisera joan zen, eta katalan eskolak eman zituen École Pratique des Hautes Etudes delakoan. Han zelarrik, Cuyoko (Mendoza, Argentina) Unibertsitatetik deitu zuten, hizkuntza erromanikoen irakasle gisa. Arroxelan ontzia hartu zuenean, haren visak bazuen pertsona ospetsu baten sinadura: Pablo Nerudarena, hain zuzen, garai hartan idazlea Txileko enbaxadore baitzen Parisen. Mendozako urteak emankorrak izan ziren zinez. Lan ugariaren artean ezin zuten ahantzi Pompeu Fabra maisua: haren 75. urtemugakari, omenezko liburuaren ardura hartu zuen; liburu hau 1943an agertu zen (3).

1945ean Chicagora aldatu zen Coromines, Filologia Erromanikoko irakasle. Hiri hartan ekin zion *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* erraldoia idazteari, zeinen lehen alea 1954an argitaratu baitzen. Ez zen hori Corominesen langintza bakarra, jakina: ikertzaile bipilak hitzaldi eta txosten batzuk aurkeztu zituen biltzarretan, eta testu zaharren edizioak ompeu (Juan Ruizen *Libro de buen amor*, besteak beste). Orduko fruitua da orobat haren liburuxka bikaina, *What you should know about Catalan language*, Chicago 1950, New Yorken hurrengo urtean ospatu behar ziren Lore Jokoen kariatara idatzia. Jakintsua ez ezik, irakasle onaren lan hori katalanera itzuli zuen, eta Moll-enean argitaratu, titulu honekin: *El que s'ha de saber de la llengua catalana* (4).

Kataluniara oporraldietan joaten zen 1953an gero, eta 1967an zaharsaritu zenean sorterrian egokitu zen, etxetik higitu gabe, oso bakanka baizik. Urteak iraganik, gaztelaniaren hiztegi gotorraren bigarren argitaraldia prestatu zuen Corominesek, José Antonio Pascual Salamancako katedradunarekin batera: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* izenburuarekin, Gredos argitaletxeak sei liburukitan argitaratua (1984-1991). Lehenbizikoa agertu aitzin, ordea, katalanaren hiztegia, aspaldiko ametsa, hasi zen plazaratzen: *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana*, Joseph Gulsoy eta Max Cahner-en laguntzaz. Lehen alea (A-BL) 1980an agertu zen eta 1991an bederatzigarrena (X-ZUM); eranskina eta aurkibidea prest utzi omen ditu Corominesek, baina argitarakizun daude oraindik, lerro hauek moldiztegiratzean.

Euskal hitz asko, etorkiz gureak edo mailegatuak, aurkitzen ditugu bi hiztegi miresgarrietan, Corominesek gaztelanian eta katalanean, bai eta frantses, okzitaniera, galiziera, arabiera eta abarretan ere trebeki atzemanak. Hitz horiek, beste guztiak bezala, arima garbi eta zurieneoak, usapal bezalakoak, eta bihurri eta gaiztoenak, banan-banan aitortzen zituen Corominesek, Emilio García Gómez-ek esan bezala esateko (5).

(3) *Miscel·lània Fabra. Recull de treballs de lingüística catalana i romànica dedicats a Pompeu Fabra pels seus amics i deixebles amb motiu del 75è aniversari de la seva naixença*, Buenos Aires 1943.

(4) Palma 1954; beste zortzi aldiz atera da geroztik, azkena 1982an.

(5) "Todas las palabras se han confesado con Corominas, desde las de alma más inocente, como tortolitas, hasta las más retorcidas". Kultura Ministerioaren saria banatzean, 1990ko urtarilaren 30ean. Aurreko urtean eman zitzaion saria (Espainiako Letretako Sari Nazionala). Saria onartu arren, ez zen joan hartzera, eta gutun gogorra egin zion Jorge Semprún ministroari. Besteak beste, hau zioen: "... no puc deixar de dir-li que la satisfacció que aquesta distinció em dóna, ve acompanyada d'una profunda recança. L'única nació, i l'única llengua meves, a les quals reto incondicional homenatge, són la nació i la llengua catalanes. I veig amb tristesa que l'Estat i el Govern que m'ho atorguen, encara neguen o regategen els drets que són deguts a totes dues...".

Ez da batere harrigarria Koldo Mitxelenaren pozkarioa, 1954an argitaraturiko artikuluko batean, gaztelaniazko hiztegiaren lehen liburukia atera berri zenean. “Gertakari handia” zen hura “hizkuntzazko ikerkuntzarako”; bazen azkenean “aspaldian behar zen gidaria”; hiztegiaren materialak “guztiz ugariak” ziren, eta eskertzekoa zen “Corominesek euskal gauzekiko erakusten zuen interesa, euskara ongi ezagutzen zuelarik, gure hizkuntza xeheki aztertutik” (6). Ondoko urteetan beste hiru aldiz argitaratu zituen Mitxelenak hiztegi horren gaineko iritziak (7).



Isabel Mujika, artzain bat, Koldo Mitxelena, Joan Coromines eta Inaki Usabiaga Erronkari, 1971ko abuztuan. Iñaki Usabiagaren klixtea.

Hiztegi eder horiek ispilu eta eredu bihurtu ziren Mitxelenarentzat, gogoan zera-bilena egiteko. Astiro-astiro, Azkueren hiztegia berritzeko asmoa, Euskaltzaindiak erreterriarrari emandako aginduaren arabera, alde batera utzi zuen. Beste bat, osoki bes-

(6) Lehen kritika horretarako ikus ASJU 1, 1954, 113-118 (= BAP 10, 1954, 373-378, eta *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491).

(7) Ikus ASJU 2, 1955, 13-28 (= BAP 11, 1955, 283-297, eta *Sobre historia de la lengua vasca* I, 467-491); BAP 12, 1956, 366-373 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491), eta BAP 13, 1957, 494-500 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491); bai eta edizio laburtua agertu zenean ere (*Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*). 1962an, beste artikulua bat (BAP 18, 1962, 93-95). Esan dezadan, bide batez, euskarari egotzitako zenbait etimologia ez direla zuzenak. Corominesek hain maite zituen *Chiruca* botak, esaterako, beste iturri batekoak dira. *Chiruca* galizieraz *Mercedes* izenaren diminutiboa da, eta izen hori zeraman katalan ekoiizlearen emazteak. Ikus Jordi Bruguera, *Diccionari etimològic*, Bartzelona, Enciclopèdia Catalana, 1996, s.u. *xiruca*.

te bat, egin beharra zen, katalan adiskidearen lanen ildotik. Eta hori da *Orotariko euskal hiztegia*, zeinen lehen liburukia ezin izan zuten Mitxelena jaunak inprimaturik ikusi, heriotzak tupustean eraman baitzuen gure artetik, 1987ko urriaren 11an.

Corominesen ekarpenean gogorazi behar ditugu halaber pertsona- eta leku-izenez burutu dituen ikerlanak. *Estudis de toponímia catalana* eta *Onomasticon Cataloniae* izeneko liburuak (8), bereziki, izen biltegi naroak dira, euskararentzat arras interesgarriak, zeren maiz euskarari aurkitu baitzuen Corominesek giltza, izen horietariko franko azaltzeko. Erdi Aroan eta geroago ere, dakigunez, Kataluniako eta Aragoiko Pirinio aldeetan euskara bizirik zegoen, eta gure mintzairak bere hatza eta herexa utzi du hango toponimian. Jakituria eta zorroztasun handiz ikertu zituen Corominesek izen horiek, chundaka lekukotasunak ekarri, zaharrak eta berriagoak, idatzizkoak eta ahozkoak. Beti ez zuen asmatu, jakina. Baina merezimendu handia du egileak, zalantzarik gabe, hain lur irristakorrean ibiltzen ausartu zelako, eta soluziobide eta iradokizun anitz eskaini. *Estudis* liburuaren sarreran (1932koan) garbi utzi zuen zein garrantzitu den euskararen historia eta linguistika sakonki ikastea (9). Mitxelenak goraiatu zuen bihotzez liburu hau ere, lehen alea atera zenean (10).

Euskara ikertu nahi duenarentzat baitezpadakoak eta behar-beharrezkoak dira lan horiek, berdin beste batzuk, oroz gainetik *Tópica hispérica* (11) eta *Entre dos llengüatges* (12). Gauza bera esan daiteke euskarari buruz Corominesek idatzi zituen artikuluez (batzuk bilduak daude liburu horietan), hala nola “Hurgando en los nombres vascos de parentesco”, “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos Pirineos” (*Arrangoitze, Lukuze, Amikuze, Sarrikota* eta beste dira hor aipagai) edo “Dos notas epigráficas” (13). Liburu arina eta denbora pasakoa dirudien beste bat, *Lleures i converses d'un filòleg* (hau da, “Filologo baten aisialdiak eta elkarriketak”) (14), biziki komenigarria da hizkuntzen arazoetan dabilen edozeinentzat, eta ez da txikia euskarak orrialde horietan duen lekua: besteak beste, *Donostia* izenari buruzko nota luzexka. Katalanez ere *Donostia* idatzi behar zen, haren ustez, eta, ebakerari datxekola, ohar jakin-garriak egiten zituen.

Bestalde, munta handikoa izan da Corominesen ekarpena beste lan batean: Manuel Agud eta Antonio Tovar zenaren *Diccionario etimológico vasco* izenekoaz mintzo naiz. Asmo horrek 1950 inguruan egin zituen lehenbiziko urratsak eta Corominesen haste-hastetik

(8) *Estudis de toponímia catalana*, bi liburuki, Bartzelona, Barcino, 1965-1970. *Onomasticon Cataloniae* sortan zazpi liburuki argitaratu dira 1989az gero, Curial-La Caixa, Bartzelona, azkena *Sal-Ve*.

(9) “I sobretot, per estudiar la part més antiga de la nostra toponímia, els noms provinents de la llengua o llengües pre-romanes que es parlaven a Catalunya, cal que [el toponimista] aprengui el poc que se sap de l'ibèric i que emprengui estudis seriosos, i orientats històricament, sobre la lingüística basca”. *Estudis de toponímia catalana*, I, 20.

(10) Ikus *BAP* 22, 1966, 283-290 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, II, 620-626).

(11) *Tópica hispérica. Estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*. Bi liburuki. Madril, Gredos, 1972. Besteak beste direla, Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* liburuaren kontu-ematea aurkitzen da lan horretan.

(12) Hiru liburuki. Bartzelona, Curial, 1976.

(13) Hiru horiek *Fontes linguae Vasconum* aldizkarian; hurrenez hurren: 2, 1970, 169-182; 4, 1972, 299-319, eta 5, 1973, 5-20.

(14) Bartzelona, Club Editor, 1971. 3. argitaraldia 1983.

izan zen iritzi- eta gomendio-emaile (15). Etxeko sentitzen zen Coromines euskararen alo-  
rrean. Euskararen izkutu eta zoko-mokoetan ez zen inola ere arrotz. Lehengo eta oraingo  
euskalariak oro irakurri zituen: Oihenart, Larramendi, Azkue, Schuchardt, Saroihandy, Ga-  
vel, Lafon, Mitxelena, Lafitte eta abar, eta guztien aburuak zorrozki galbahetu.

Euskal leku-izenak hurbildik ezagutu nahian, Nafarroara etorri zen, Erronkarira,  
1971ko abuztuan, Mitxelenarekin batera bospasei egunetan elkarrekin ibiltzeko asmoz,  
Salamanca bi euskal ikasle lagun zituztela, Iñaki Usabiaga eta Isabel Mujika; hurbil  
zebilen, gainera, herriko medikuaren semea, Pello Etxenike gaztexkoa. Zorigaitzoz, or-  
dea, asmoa asmo gelditu zen, biharamunean Mitxelenak, mendian eroririk, orkatila hau-  
tsi baitzuen. Zernahi gisaz, bien arteko adiskidetasunak indartsu iraun zuen. Bazituzten  
biek puntu komun anitz, zientziaz kanpo ere: oroiz gain, gerran izanak ziren, biak Es-  
painiako Errepublikaren alde, eta beti agertu ziren askatasunaren defendatzaile eta beren  
hizkuntzen eskubideei oso atxikiak (16).

Euskaltzaindiak ohorezko kide izendatu zuen Coromines 1995ean. Katalan ja-  
kintsuari igorri gutunean hauxe zioen Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak:  
"Izendapen honetaz Euskaltzaindiak erromanista eta euskalari hauta zaren hori nahi  
izan zaitu bereizi eta sariztatu, gure arteko hizkuntzak ezagutzeko lan neurrigabe eta  
baitezpadakoaren egile zarelako". Ez dut sekula ahantziko zer esan zidan Coromi-  
nesek telefonoz gutun hori hartu zuenean: izendapen hura Sorbonneko *honoris causa*  
doktoregoaren pare zen harentzat. Horra zein maite zituen Joan Corominesek euskara  
eta Euskal Herria. Izendapena Xavier Terrado haren ikasleak, Lleidako Unibertsita-  
tateko irakasleak, jaso zuen, eta maisuaren mezua irakurri. Hona testua:

"Ohore handi honegatik eskerrik asko bihotzez. Moltes gràcies cordialment, sa-  
vis col·legues. Grand merci, savants amis. Sumamente agradecido a tantos maestros.  
Gora Europa bat, Añemendiko alaba!" (17).

Ez zen Coromines jauna gorazarre-gose, inondik ere. Gainera, batzuetan arrazoi  
sakonak zituen. Adibidez, 1973an Antonio Tovarrek proposatu zionean Gaztelaniaren  
Erret Akademian sartzea ezetz erantzun zion: Katalunia herrialde okupatua izan bitar-  
tean hura ezin zitekeen Espainiako erakunde bateko kide bihur.

Langile nekagaitza zen Coromines jauna. "Ez dut eri izateko denborarik", esaten  
zuen maiz, eta haren originalak behin eta berriz zuzentzen zituen. Azken urteetan ere

(15) Uzkur, dakigunez, Mitxelena ibili zen, ez baitzuen uste egin zitekeela, oraingoz behin-  
tzat, euskal hiztegi etimologikorik. Bazituen errenteriarrek ongi iltzatua zientziaren eskakizun zor-  
rotzak. Positibista zen, erabatekoa, gainera. Hasieran bero eta gogatsu agertu bazen ere, urte ba-  
tzuk geroago epeldu eta hoztu zen Mitxelena, zeharo aldendu arte. Alferrik izan ziren  
proiektukideen eta Corominesen gutunak (orain arte argitaragabeak).

(16) Bi jakintsuek Salamancan ezagutu zuten elkar, Onomastikako 5. biltzarren, 1954an.  
"Amigo mío cordialísimo, maestro y colega, a un tiempo, colaborante, inspirador. Pocas páginas  
hay en las partes investigadoras de mis dos diccionarios etimológicos —el catalán y el hispano—  
y del *Onomasticon Cataloniae*, donde no conste su nombre como juez, como fuente límpida, o  
como faro que alumbraba el saber futuro", idatzi zuen Corominesek Koldoren omenez egin zen  
liburuan: *Koldo Mitxelena Elissalt, 1915-1917*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997, 19.  
Eta lehenago hauxe ezarri zuen katalan hiztegiaren hitzaurrean (xii): "Sense Schuchardt la doctrina  
bascològica més segura de Mitxelena no hauria vingut: però Mitxelena fa bé d'investir la de Schu-  
chardt sense contemplacions".

(17) Ikus *Euskera* 40:2-3, 1995, 993.



Joan Coromines 1971ko azaroan. Curial Edicions Catalanes argitaletxeko klixea.

hamabost orduko lanaldiak zituen egunero, tarte bat utziaz astean, literatura irakurtzeko, eta batez ere atseginen zuen hizkuntzaz: grezieraz.

Filologiarako deia gazte-gaztetan nabaritu zuen bere baitan, baina aitik bultzatu zuen, agian ohartu gabe. Hona nola kontatu zuen berak:

“Tenia disset anys, i aquell mes de maig, en lloc de preparar-me per als exàmens de Lògica, d’Història i de Literatura, em passava els dies i les nits al despatx del meu pare llegint les publicacions de la Secció Filològica de l’Institut d’Estudis Catalans; sorprès allí pel meu pare quan entrava amb un client que venia a consultar-lo com a advocat, i que per cortesia li preguntava el que pensava fer, el meu pare va deixar caure amb un aire de falsa indolència i fins de recança, però amb molta oculta murrieria:

— Aquest noi, potser l’haurem de deixar ser filòleg... - tot mostrant-li el llibre que jo tenia a les mans.

La seva mirada, amb un retret mut, em deia: “Com és que no prepares els exàmens?”. La meua reacció interna va ésser: no, no descuido el repàs de Lògica i Literatura per peresa de fer el que cal, sinó pel que el meu pare m’acaba de revelar sense voler, és a dir, que tinc una veritable vocació de filòleg. Des de llavors m’hi vaig llançar com un cavall desbocat” (18).

Max Cahner-en hitzez nahi dut neure hau bukatu:

---

(18) Josep Pla, *Homenots*. Obra completa 16. liburukia. Bartzelona, Destino, 2. argitaraldia 1981, 262-263.

“Joan Coromines ha encarnat el millor de la Catalunya del segle XX. L’apassionament per les coses nobles, com la llibertat de les persones i dels pobles, els ideals democràtics, la supremacia de la cultura, el respecte més profund i la fidelitat pels qui ens han precedit, el treball, l’austeritat com a úniques fonts de progrés, l’estimació de la terra, la crítica com a garantia de l’avanç científic” (19).

Gu guztion oroitzapenean geldituko da betiko Joan Coromines jauna (20).

*Henrike Knörr*

---

(19) *Revista de Catalunya* 114 (bigarren aroa), 1997, 3.

(20) Corominesen bizitzaz eta bibliografiaz gehiago jakiteko, ikus Pineda de Mar-eko udalaren eraginez zenbait egilek onduriko *Joan Coromines. 90 anys*, Bartzelona, Curial, 1995. Interresgarria da halaber Josep Ferrer i Costa eta Joan Pujadas i Marqués-en ardurapean udal eta argitaletxe berek argitaratu duten *Àlbum Joan Coromines*, Bartzelona 1997. Bibliografia joriago dator bigarren liburu honetan.